

## Miren Amuriza (Urrikoa)

Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*

1)

Soka luze bat trentzatu dugu

zentimetroz zentimetro,

trapu zahar zein oihal berriak

eguzkitan haizatzeko.

Zer ote *euskal*? Zer da *kultura*?

Zer dugu *transmititzeko*?

Zenbait galdera zintzilikatu

ditugu dagoeneko,

ez al da hori lehen baldintza

erantzunak aurkitzeko?

2)

Zer dugu *euskal*? Konnotazio

ezberdindun bi silaba.

Beraz *euskaldun*, nor da *euskaldun*?

Mintzo duena *euskara*.

Hizkuntza bat da historia bat

eta *euskara* zer da ba?

Ez da gaurdaino biziraun duen

iraganaren alaba,

iraganetik honaino heldu

izanaren emaitza da.

3)

*Kultura* zer da? Egunkari bat

osorik orririk orri.

Ta *kulturgintza*? Gure sorkuntza

artistikoen jatorri.

Bide luzea egin dugu ta

aitortza zor zaio horri;

Arantzazutik abiatuta

Urbiaraino etorri,

baina oraindik urruti samar

ikusten dugu Aizkorri.

4)

Ondorengoei *transmititzeko*

*euskaldunok* zer dugu ba?

Lehengoengadik jasotakoa:

hizkuntza eta *kultura*.

Korronte hori da *jarraidura*

ostera *irekidura*,

da egotea herri txiki bat

zabal-zabalik mundura.

Zer gara beraz, izotz hauskorra

edo mugitzen den ura?

5)

Sarasuaren hitz ho(r)iek denak  
haizetara dakartzagu,  
dagoeneko soka ez dago  
hasieran bezain malgu.  
Eskegi dugu teoria eta  
praktika zelan daukagu?  
Egungo Euskal Kulturgintzaren  
isla baldin bagara gu[1],  
jakin-mina du, gaztea da eta  
emakume ahotsa du.

6)

Aldiz gorputza dantzari baten  
soin mugikorra litzake,  
jai guztietan euskara hutsean  
hartu ohi duena parte.  
Izan Ziburu, Oion, Ituren,  
Barakaldo zein Lasarte,  
sua pizteko ez dago zertan  
jo Zugarramurdirarte,  
akelarrea nork bere herriko  
plazan hasi baitezake.

7)

Aktore baten aurpegia du,  
antzik ez du inorenik,  
ezezagunei ere euskaraz  
egiten die lehenik,  
baina ulertzen ez badiote  
agurtzeko dioenik,  
antzezpen bako irribarre bat  
egiten die azkenik;  
“ongi etorri”-ren sinonimo da  
ta ez du behar itzulpenik.

8)

Kulturgintzatik herrigintzara  
pasa nahi dugun honetan,  
sokaren bueltan bilduko gara  
hilean behin gogoetan,  
gure ideiak idatzi gura  
genituzke oihaletan,  
gero haizatu, josi, tolestu,  
nahiz zintzilik laga bertan...  
Ez daitezela behintzat geratu  
preso kajoi bazterretan.

---

[1] EKT 5eko ikasle taldea

# Oihana Bartra (Azarokoa)

Doinua: *Brindo por las mujeres*

1)

Euskal kultura zer den

Zehazteko ahaleaginean

Kulturaz hitz egiten

gabiltza azken finean

Antzerki esparrura

Hurbiltzen garen heinean

Denok gara aktore

Oholtza baten gainean

2)

Denok izan gaitezke

Obra baten transmisore

Oholtza, teloi, gidoi,

Atrezzo ta bastidore

Bakoitzak gure mezu,

Gure keinu, gure kode.

Ez al da gauza bera

Eragile ta aktore

3)

Eragileez gain guruz

Bete behar da eszena

*Gu* da iluntasuna

*Ru* da uxatzen duena

Pertsona argi emaile

Transmisoreen ekarpena

Argituko dutenak

Direna ta dakitena

4)

Kulturarik kultura

Diferentzien jolasa

Printzipio berberak

Kanbiatzen dute traza

Drama bada ekintza

Ta energia arnasa

Antzerkia ahal dugu

Ahotik ahora pasa

5)

Segituko bagenu

Stanislavskiren moda

Kultura ere bizi

Ahal da barrutik kanpora

Lehendabizi sentitu

Kulturaren metafora

Pentsatu eta ekin

Ahal izateko gerora

6)

Sarri egonagatik

Kulturari atxikiak

Hunkitu arren dantzak,

Teatroak, trikitiak..

Ikuskizunak dira

Masentzako eraikiak

Ta funtsezkoak dira

Gure erritual txikiak

7)

Umezaroan jarri

Daiteke lehen harria

Herriko antzerki talde

xume batean jarria

behetik sortzea da

lehenengo ezaugarria

Herrigintzan baitago

Guztiaren oinarria

8)

Zertarako antzerkia

Euskaraz egiten hasi?

Zertarako egin negar,

Barre, algara, garrasi?

Zertarako inorengan

Hunkidura sorrarazi?

Bada, nahi dugulako

Garena adierazi

## Xabi Paya (Abendukoa)

ERBESTEKO KATEBEGIA

Martin Ugaldek Ramon Labayeni

Doinua: Euskal Herriko lur maite hartan

Caracas, 1967ko urtarrillak 3

Ene maréchal estimatua:

Lagun jator eta umill; gure aberri azpiratua oraindik nekez al dabil? Diktaduraren azken arnasa beingoz izanik ain urbill, idazten dizut izan zaitezen erritarren itsumutill; errekan bertan eztakizkigun arraiñak egarriak ill. Caracasetik segituarren erriaren egoera, naiago nuke elduko banintz lur batean egotera. Eunka euskaldun bagera, baiña au da guztion galdera: “nere famili edo sendia gaur zer modutan ote da?”

Gorputzez emen aurkituarren, gu beti an bizi gera. Zorionean, ezkera egongo betiko arrotzen mende, baiña ikusi bearko degu zer lege eta botere jartzen diguten Borboi gaztea egindakoan errege! Arazo denak “Caudillo”aren taupaden mende baleude... Arazo franko izango dugu, Franco ezteanean ere. Beraz, lanean asi gaitezen Euskalerrriaren alde; ogeita amar urte pasata, oro min eta erabe, euskaldun gazte jaioberriak amnesia jota daude, ta kultura zein istoriaren ezagutza onik gabe, nola izango dira nortasun kontzientziaren jabe? Jesus Mariri idatzi diot leendakari modura Jaurlaritzaren sarea jarri dezan gure zerbitzura, euskaldunak prest egon gaitezen ill orduko diktadura. Literatura, antzerkia zein zinema dira jomuga, bestela nekez suspertuko da Euskalerrriko kultura.

Euskal letretan, berez, badira nobelak zein olerkiak minez idatzi izan dituzten autore andi-andiak: Monzon, Zaitegi, Irazusta zein Elentxun maisu argiak... Beraz, talentuz, auta itzatzue biarko agintariak, aien lan denak irakur ditzan urrengo belaunaldiak. Baina liburu onak eztira sortzen taldean ekiñez, baizik norbere barruko gaiak besteenekin bat egiñez; guk idazleak bear ditugu, jantziak milla domiñez, izkiriätzen bizi direnak, norbait izateko griñez: ni enaiz fio anbiziorik eztuten kulturgileez.

Antzerkiaren kasuan ere bada zerbait gorpuztua, antzerkigilez jantzia, baina antzezlez naiko justua. Euskara utsez izan behar dira aotsa eta testua, muga pasatzen sufritutako egoera injustua, eztadin izan saririk gabe egiten den apustua. Tamalez, Euzko Iztundeari goiz egin zioten mate, eta artista gogoz zeudenek Madrill aiñ gertu daukate! Eta Madrillen zenbat aukera! Jotzeko ainbeste ate! Aberrian ezta egongo ez antzerkigintza ez arte, euskal antzezle fiñak sortzeko eskola bat izan arte.

Zazpigarrengo artea ongi baliatu bear bada, kontu sakonak bidera bitez zinemako pantailara eta umore uztartzaillea urrutikuskiñetara. Elorzak asi duen bideak darakuskigun gisara, munduan leku bat egiteko modurik oberena da. “Eriotzaren aizpitartea” ikusgai da zinemetan, euskaldunaren karikatura latza azaltzen da bertan! Bildu aditu talde polit bat estudio baten bueltan eta eskatu as daitezela prestatzen ariñeketan estrategia nazional bat ikus-entzunezkoetan.

Katea ezta eten oraindik, autsi dute teorian, baiña bizi da Venezuelan, Guatemalan, Kolonbian... Inork etenik sentitzen badu euskaldunon istorian, jakin bear du etzela eten, naiz egon den iltzorian; katebegia billa dezala erbesteko memorian.

Alako gutun bat jasotzea gogorra dela badakit, baiña erriak bear duena argi dakust urrutitik. Erbestekoon lanak segitu bear du bere bidetik, sasi guztien gaiñetik eta odei guztien azpitik!

Gora Euskadi!

Besarkada bat nire beste aberritik.

Ugalde'tar Martin

## Juanjo Respaldiza (Urtarrilekoa)

Doinua: *Agur sagar beltzeran* [www.youtube.com/watch?v=IgCwmoxv4nc](http://www.youtube.com/watch?v=IgCwmoxv4nc)

1)

Aretxabaletako  
urtarril-ordaina  
asteburu hirukoitz  
mamitsu apaina  
historia, sormena,  
enpresa... bikaina!  
kantuz egingo dugu  
birpasa labaina  
bertsoek ezin dute  
dena esan baina.

2)

Paulo Iztuetaren  
berba bakoitzeko  
katebegi bat doa  
katea luzeko  
Euskal Herria langai  
eta betaurreko  
gertakariak dira  
interpretatzekojoan-etorkizunak  
bidean lotzeko.

3)

Historia guretzat  
bete baita nekez  
ez zegoen muga bat  
osatu du kaltez  
hegoaldea bitan  
banatu bi atez  
tarteko marra herri  
harresituz betez  
zatiketak hor dirau  
kasik mila urtez.

4)

Historia da jantzi  
erantzi ezina  
urteen ta mendeen  
itxuran egina  
lehengoak oraingoan  
dauka eragina  
urruneko sustraia  
dugu zubigina  
belaunaldi artean  
doan bizi mina.

5)

Arana eta Campion  
hiri eta agro  
burdina-zulo edo  
gari eta ardo  
azalean aldea  
apur bat badago  
begi osagarri bi  
dira sakonago  
gu beti izan gara  
bat baino gehiago.

6)

Mixel Etxekopar da  
kultura-isuri  
Xibero, Xiru, Xora  
txirula txiruri  
maskarada, pastoral  
gorri, beltz ta zuri  
amak esaten dio  
ta hala dirudi  
ari dela “egiten  
ahuntz deneko zubi”.

7)

Etxahun Iruri maisu  
harturik gaztetan  
belarriz trebatu zen  
tuntun-txiruletan  
gerora solasean,  
urean, haitzetan...  
esanean ez bada  
ixiluneetan  
musika entzuten du  
soinu guztietan.

8)

Sortu, hazi ta egin  
eman, hartu, biba!  
Hebentik Elkartea  
Mauleko distira  
libertatearentzat  
sosak eskas dira Xiberoa dantzatzuz  
bizitik bizira  
inork eskatu gabe  
egiten ari da.



9)

Sors aita, Sors semea

Jose Mari, Gexan

familia soka bat

liburuen plazan

Elkar Fundazioa

daukate arnasan

zenbaki hutsak ezin

irabazi izan

arimak ere leku

behar du enpresan.

10)

Hiru berbatan dagi

proiektuak zita

profesionaltasuna

lehen erreminta

militantetasuna

erroen gonbita

ikusgarritasuna

emaitza polita

merkatuan jateko

geuretik hasita.

## Mikel Artola (otsailekoa)

1)

Olatuak aparretan  
naufragoen mesedetan  
zeren egarri ote gabiltza  
botilako mezuetan?

2)

Iraganari begira  
etena ala segida  
goian, behean ala hertzean  
euskalduna non bizi da?

3)

Buruan eskuez hazka  
azkenean harramazka  
nor da galtzaile, nor irabazle  
bukatu al da gatazka?

4)

Hitz hutsak telebistetan  
zaurituak albistetan  
noren ahotik, noren lepotik  
aritzen gara hizketan?

5)

Bizirik gaude halare  
eskola ume herabe  
altxa eskua, nork izan nahi du  
bere buruaren jabe?

6)

Ganbelako behi antzua  
iraganaren zantzua  
ikuiluetan aurkitu ote  
liteke honen zentzua?

7)

Aitonaren gazta ona  
irratietako sona  
zein da moderno zein zaharkitu  
Kalakan ala Madonna

8)

Orduz ordu, unez une  
jolasean hiru ume  
kantuk bihur ote lezake  
konplikatu zena xume?

9)

Ahots hutsarekin deman  
euskaldun zaharron teman  
altabozak noiz jarri zituzten  
historiaren tabernan?

10)

Aire zaharrak iparretik  
ekaitz berriak hegotik  
zorabiorik gabe irtengo  
al gara zurrunbilatik?

11)

Zenbat gara bat, zazpi, hiru?  
hizkuntza bat da testigu  
gureaz asko hitz egiten da  
besteenaz zer dakigu?

12)

Guztiok gara nomada  
Senegal, Peru, Sahara  
nola ekarri behar ditugu  
gu hurbiltzen ez bagara?

13)

Argizaiola opari  
zergatik ez eman hari  
euskañolaren zubia eraiki  
zuen arkitektoari?

14)

Konplejuekin akabo  
maitasunari lau trago  
sufritzen jada aspertu gara  
goza al daiteke gehiago?

15)

Izan dolu, izan festa  
ospakizun nahiz protesta  
mende oso bat iraganen dut  
sorterriari galdezka.

## Onintza Enbeita (Martxokoak)

*Doinua: Gogoratuko zara herriko jaietan*

1)

Lau hizlari, lau berba  
puntu, koma, marra  
Lau lagun: hiru eme  
tarteak bat arra  
betaurrekoak falta  
sobera bizarra  
sasoi baten ispilu  
aurrean oilarra  
emeak ikusteko  
nonbait bista txarra.

2)

Mende erdi atzera  
egiteko gertu:  
aldaketa urteak  
nola ziren lehertu.  
Aresti, Lauaxeta  
hausnartu, aztertu  
Txabi gabeko Bilbo  
be ezin ulertu  
baina neskarik inon  
ez ginen agertu.

3)

Isilik egotea  
ez ei da problema  
batez ere jakinda  
aukera bat dena.  
Batek jan dezakeen  
pozoinik txarrena  
erretzen dizkiona  
erraiak, barreana  
da isiltzen dutenean  
isiltzen duena.

4)

Historia hurbila  
hemen da gorria  
azalek dute gerra  
tatuai lodia.  
Non daude galtzaileen  
dominak, gloria?  
Beldurrak isilduen  
egunak, zoria  
geu ari gara josten  
geureen historia

5)

Gerratik ihesean  
joandako moduan  
laurogeitamarreko  
urteen inguruan  
kaleak sutan zeuden  
gazteak guduan  
hodeiertza ikusten  
zaila zen zeruan  
ta euskaldunak arnasa  
behar du munduan.

6)

Norberak norbera  
bizi ohi duenez  
kontakizunak ditu  
beregain hainbat ertz.  
Dena ez da zuria  
ta dena ez da beltz  
sasoiak pasa ahala  
bizirik gaudenez  
Beltzuria daukagu  
gordeleku legez.

# Fredy Paia (Apirilekoa)

*Doinua: Gogoratuko zara herriko jaietan*

1)

Lau hizlari, lau berba  
puntu, koma, marra  
Lau lagun: hiru eme  
tarteetan bat arra  
betaurrekoak falta  
sobera bizarra  
sasoi baten ispilu  
aurrean oilarra  
emeak ikusteko  
nonbait bista txarra.

2)

Mende erdi atzera  
egiteko gertu:  
aldaketa urteak  
nola ziren lehertu.  
Aresti, Lauaxeta  
hausnartu, aztertu  
Txabi gabeko Bilbo  
be ezin ulertu  
baina neskarik inon  
ez ginen agertu.

3)

Isilik egotea  
ez ei da problema  
batez ere jakinda  
aukera bat dena.  
Batek jan dezakeen  
pozoinik txarrena  
erretzen dizkiona  
erraiak, barreana  
da isiltzen dutenean  
isiltzen duena.

4)

Historia hurbila  
hemen da gorria  
azalek dute gerra  
tatuai lodia.  
Non daude galtzaileen  
dominak, gloria?  
Beldurrak isilduen  
egunak, zoria  
geu ari gara josten  
geureen historia.

5)

Gerratik ihesean  
joandako moduan  
laurogeitamarreko  
urteen inguruan  
kaleak sutan zeuden  
gazteak guduan  
hodeiertza ikusten  
zaila zen zeruan  
ta euskaldunak arnasa  
behar du munduan.

6)

Norberak norberea  
bizi ohi duenez  
kontakizunak ditu  
beregain hainbat ertz.  
Dena ez da zuria  
ta dena ez da beltz  
sasoiak pasa ahala  
bizirik gaudenez  
Beltzuria daukagu  
gordeleku legez.

# Beñat Gaztelumendi (Maiatzekoa)

## 28 GALDERA EUSKAL KULTURARI

### Doinua: Anderia gorarik

-1-

Ze hizkuntza, ze  
arropa daramatzagu?  
“Euskal”-ek nongo  
nortasun agiria du?  
Identitate  
krisi bat ote daukagu?  
Gu bagara nor  
baina nor ote gara gu?

-3-

Bertsoa, Rapa,  
ahots fin edo lodia;  
Etxeparek zein  
luke gaurko melodia?  
Harria edo  
haria da memoria?  
Nola kontatzen  
dugu gure historia?

-2-

Nola ikusten  
ote dugu ari dena?  
Exotikoa,  
gutxitua, indigena...  
euskal kulturak  
zein ote du abizena?  
Guk hautatua  
edo jarri zigutena?

-4-

Batzutan eten  
eta besteetan jarraitu:  
Zer hasi dugu  
eta zerekin amaitu?  
Kulturak beti  
performance itxura baitu  
egiten dugun  
horrek zer egiten gaitu?

-5-

Euskal kulturak  
zein ote du hiriburu?  
Nork ezkututzen  
eta ikusten gaitu gu?  
Gure ekintza  
eta gure testuinguru;  
egiten dugun  
hau nondik egiten dugu?

-7-

Zein pausu eman  
dira gure enparantzan?  
Zertan gabiltza  
seguru edo zalantzan:  
gu ekinean  
edo besteen esperantzan?  
Nori helduta  
ibili nahi dugu dantzan?

-6-

Noizbait leihoak  
zabaltzeko ametsean  
gu ote gara  
nagusi gure etxean?  
Ba al da kultur  
sistema aldrebesean  
ertzik zentroan  
eta zentrorik ertzean?

-8-

Besteenak ote  
dira gure metodoak?  
Bafletik dio  
idazlearen gogoak:  
ez ote gara  
gu, ameslari zoroak,  
Cervantes izan  
nahiko genukeen moroak?

-9-

Zer ote gara  
behe-lainotako “*euskal*”-ak:  
txiki bat edo  
bi handiren sukurtsalak?  
Muga estuak  
dauzkanez mundu zabalak  
mundu guztiak  
al dira unibertsalak?

-10-

Gu zenbat gara:  
bi milioi edo bost mila?  
Zer gara jende  
umildu edo umila?  
Ziklo berrian  
norantza doa gurpila?  
Erantzun edo  
galdera zuzenen bila?



# Erika lagoma (Ekainekoa)

## ERREZETAK.

Doinua: Sorterriko koplak

1)

Ez dut aurkitu kokorik,  
ezta wakame algarik,  
hala ere hau da gure lurra  
Eta ez dugu hoberik.

2)

Teseo pintzekin hartu,  
Epicuro fusionatu,  
bidea beti da potentziala,  
beraz, irrikaz dastatu.

3)

Identitateei zurrut,  
eta ateratzen da Hulk,  
sukaldea narrasten ikusi  
ditut gazte ero batzuk.

4)

Popularra ta jaso,  
champagne kopa ta basoa,  
baina oraindik ez dugu argi  
nork hil duen arbasoa

5)

Zorrotz mandendu labana,  
nahastu aita ta ama,  
kontuz ibili esku artean  
lehertuko zaizu flana.

6)

Infusionatu tribua,  
eta astindu burua,  
geroak esango du zer zaren,  
gurua edo babua.

7)

Harria beti da harri,  
ta herria du aldarri,  
iragazkitik pasatu eta  
bandeja batean jarri

8)

Ez zazu bota azala,  
kristalak gorde dezala,  
E-200ik gabe mantentzen  
da euskaldun naturala.

9)

Irabiatu denbora,

ta sartu kobazulora,

Izan egia izan gezurra

nahi duzuna izango da.

10)

Trapuaz garbitu zerra

eta arnastu eterra,

ez dugu nahi baina hori gara

finean, txorizo-burgerra.